# LEZO

# AGENDA Kulturala

2026 // URTARRILA - EKAINA

PROGRAMA OSOA HEMEN

Elkar zainduz Lezo



Lezoko Unibertsitateko Udala

LEZO KULTURA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

ORAIN KULTURA

SAREA
EUSKADIKO ANTZOKI SAREA
RED VASCA DE TEATROS

# HAUR ANTZERKIA ////////////////////////////////////////

**Gezala Auditoriumean,** ostiraletan, 17:15ean




URTARRILAK
**5**
Astelehena
12:00,
Bekoerrota
kiroldegia

## PORROTX, MARIMOTOTS, PUPU ETA LORE

Katxiporreta. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

**Zerua lapurtu dute.** Laukotea arduratuta dago izarrik ikusten ez duelako. Zer gertatu da zeruarekin? Lapurtu egin al digute? Birtxi farozainaren laguntzaz urdin infinitura abiatu dira izarren bila… unibertsoaren sekretuak ezagutzera, urrunera begiratuz barrura begiratzeko!

---



URTARRILAK
**23**
Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

## AGUR, PETER PAN

Yarleku Teatro. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 3€

Txotxongilo-ikuskizuna. Mariak, irudimen handiko umeak, maite ditu bere aitonak kontatzen dizkion istorio eta abenturak, eta harekin arratsaldero Peter Pan jolasean pasatzen du.
Baina bat-batean, gau batean, galdutako umeek Maria bere gelatik Inoiz Gehiagoko Lurraldera eramango dute. Ondoren, abenturak lehen pertsonan biziko dira.

---




OTSAILAK
**20**
Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

## KIMU

Marie de Jongh. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 3€

O andreak multinazional batentzat lan egiten du bakardade erabatekoan, duela gutxi langile asko zegoen bulego batean. O andreari ideiak agortzen hasi zaizkio. Halako batean, natura haren lan-eremua eta gorputza bizi-berritzen hasi da guztiz eraldatu arte; naturak giza izaera berri bat sortzen duen punturaino, ideia berri bat.

---




MARTXOAK
**6**
Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

## TXAPELDUNAK

Lanku. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 3€

Partida bat galdu duen haurra triste dago: pilotarekin haserre dago, baina pixkana adiskidetzen joango da. Berak beti irabazi egin nahi du, eta beste kirol guztiak kakaren pare jartzen ditu. Pixkanaka ikasiko du, ordea, beste jolas askok lekua dutela kalean, eskolako patioan… Eta lehia ez dela beti beharrezkoa.



APIRILAK
17
Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

## ZEPO ZAPO

Markeliñe. EUSKAL HERRIA. HITZIK GABE. SARRERA 3€

Zepo frontean dago, trenbidearen erdian zain. Bat-batean, bera bezalako beste bat agertzen da: uniforme eta portaera ezberdinak, baina beldur, ausardia eta aurreiritzi berak. Bi soldadu etsai aurrez aurre. Beharbada gerra arraroa izango da. Beharbada pertsonaiek ez dute zertan tirorik egin behar. Pertsonaiek jakingo dute hitzek, begiradek eta keinuek armek baino gehiago zauri dezaketela.



MAIATZAK
8
Ostirala
17:15,
Gezala
Auditoriuma

## ATEAREN BESTALDEAN

Hika Teatroa. EUSKAL HERRIA. HITZIK GABE. SARRERA 3€

Neska aurrera doa bidean, bere atearekin, izan zen bizitza eraikitzen duten oroitzapenez betetako ate-etxearekin. Berriro bizi nahiko lukeen bizitza, oraintxe bertan balitz bezala. Mendiak eta hiriak ibiltzen ditu, ibaiak eta basamortuak zeharkatu, itsasoaren barrenean galdu. Gaur, ordea, zain dago atearen bestaldean. Egun berezia du. Bere urtebetetze eguna.



EKAINAK
20
21
Larunbata eta
igandea, 12:00,
Gezala Auditoriuma

## ORRATX! TXIKI

Orratx! EUSKAL HERRIA. EUS. DOAN

Gure harrobian dihardutenek, ikasturte bukaeran, urtean zehar prestatutako lanak taularatzen dituzte, eta aurten ere halaxe izango da.



# HAUR ZINEMA ////////////////////////////////////////

Gezala Auditoriumean, larunbatetan, 17:00etan

CINE INFANTIL




URTARRILAK **24**
Larunbata 17:00, Gezala Auditoriuma

## KAYARA INKA GERRARIA

Inka gazte bat Chasqui mezularien lanaren zale amorratua da. Inken Inperio zabalean zehar mezuak eramateaz arduratzen den gizon talde esklusibo honekin bat egitea du amets. Genero-arau zorrotzei eta bere gizarteko tradizioei aurre eginez, gazteak ezarritako espektatiben aurka borrokatuko du, eta hainbat oztopori aurre egingo die bere anbizioa betetzeko.




OTSAILAK **14**
Larunbata 17:00, Gezala Auditoriuma

## BUFFALO KIDS

Tom eta Mary, bi anaia umezurtz, New Yorken lehorreratu ziren XIX. mendearen amaieran. Osabarekin elkartzeko, Mendebalde Basatia zeharkatzeko tren batean polizoi gisa abenturatuko dira, eta Nick ezagutuko dute, beren bizitzak betirako aldatuko dituen lagun berri eta aparta. Elkarrekin bidaia arriskutsu batean murgilduko dira, bilau gaiztoei aurre eginez, ustekabeko lagunak eginez eta egoera paregabeak biziz.



MARTXOAK **7**
Larunbata 17:00, Gezala Auditoriuma

## HOPPER OILASKOERBIA ETA MARMOTAREN SEKRETUA

Oilaskoerbia bueltan da! Iraganari buruzko sekretu bat argitara aterako da, heroiari eta bere lagunei abentura epiko batean murgiltzeko, iragana aldatzeko ahalmena duen marmota misteriotsu baten bila… eta, beharbada, bere espeziea salbatzeko. Baina bilaketa horretan, konturatuko dira ez direla marmotaren magiaz jabetu nahi duten bakarrak…




APIRILAK **25**
Larunbata 17:00, Gezala Auditoriuma

## HARTZ-ATZAPAR KANPAMENTUA

Maia (9), neskato irudimentsu eta zalapartatsua, eta Jan (9), hiriko mutil azkarra, erlojuaren aurka ariko dira Sebastian izeneko eraikitzaile xelebreak mehatxatutako udaleku bat salbatzeko. Atsedenik gabe abiatuko dira haranean oraindik bizi dela uste duten hartzaren bila, nahiz eta inork inoiz ikusi ez duen. Abentura honetan Fritz izango dute bidelagun: mofeta dibertigarri eta marmarti bat, hitz egiten duena, eta bailara zein bertako animaliak salbatzeko taldearekin bat egingo duena.

# ZINEMA FAMILIAN ////////////////////////////////////

Gezala Auditoriumean, larunbatetan, 19:00etan

**CINE FAMILIAR**




URTARRILAK
**24**
Larunbata
19:00,
Gezala
Auditoriuma

## MASPALOMAS

Bikotekidearekin utzi ondoren, Vicentek (76) gustuko bizitza darama Maspalomasen: eguzkia, parranda eta gozamena. Baina ezusteko istripu baten ondorioz, Donostiara itzuli, alabarekin topo egin, eta erresidentzia batean bizi beharko du. Egoera berri horretan, bere buruarekin eta ingurukoekin adiskidetzeko garaiz ote dagoen galdetuko dio bere buruari.

---




OTSAILAK
**14**
Larunbata
19:00,
Gezala
Auditoriuma

## KARMELE

1937. Karmele Frantzian erbesteratzen da gerraren ondorioz. Han, erbesteko euskal enbaxada kulturalaren proposamena jasotzen du, dantza- eta musika-ikuskizunen bitartez gerraren kontra borrokatzeko. Bertan, Txomin ezagutzen du, tronpetajole profesional bat, eta harekin maitemintzen da. Denboraldi batean Venezuelan bizi ondoren, bikotea etxera bueltatzen da, kendu zieten guztia berreskuratzeko esperantzarekin.

---




MARTXOAK
**7**
Larunbata
19:00,
Gezala
Auditoriuma

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira

## EZ GERA ALFERRIK PASAKO

Garai bateko zuri-beltzezko argazkietan izoztua gelditu den abeslari gaztea izan zen Lurdes Iriondo. Enkuadre baten barruan harrapatua, haren ahotsa diskoetan bezala. Ahaztuta, nonbait, ikuspuntua hautatu egiten dela. Ahaztuta, abeslaria izateaz gain, euskal kulturaren transmisioan ezinbesteko erreferentea ere badela. Transmisioarentzat haurrak ezinbesteko zirela ulertu zuen eta haientzat idatzi zituen liburuak eta antzerkiak.

---



APIRILAK
**25**
Larunbata
19:00,
Gezala
Auditoriuma

## POPEL

Unai Eguia irakasleak ikerketa bati ekiten dio, nazien kontzentrazio esparruetara deportatutako Enric Moner kataluniar errepublikarrari zer gertatu zitzaion argitzeko. Aldi berean, Antón Gandariasek bere osaba Anjel Lekuona ikertzen dihardu, Gestapok erbestean atxilotutako bizkaitarra. Ikerketak Pragara eramaten ditu, eta František Suchý eta bere semearen historia azaleratzen dute. Aita-semeek bizia arriskuan jarri zuten, ezkutuan, 2.000 biktima baino gehiagoren errautsak salbatzeko.

# DANTZA / MUSIKA / ANTZERKIA ////////////////

Gezala Auditoriumean, igandeetan, 19:30ean



URTARRILAK
**11**
Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

## NOR NAIZEN BANEKI

Artedrama + Axut! EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

Harkaitz Canok eta Ximun Fuchs-ek nortasunaren bilaketari buruz idatzitako antzezlana taularatuko dute:"Nor naizen baneki… Zuk badakizu? Jakin nahi zenuke? Angelu guztietatik nahi zenuke zeure burua ikusi, ala behar da angelu itsu bat? Ezagutu daiteke norbere burua isolatuki, norbere ingurunea ezagutu gabe? Ez ote da antzerkia barne indusketarako tresnarik onena?"



URTARRILAK
**25**
Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

## KAKA

Xanti Agirrezabala, Erika Olaizola. EUSKAL HERRIA. EUS. 8€

Herriko plazan kaka-mokordo bat agertu da. Nork egin du? Noiztik dago hor? Eta orain, zer egin? Nori tokatzen zaio marroi hau argitzea? Garbitzea? Kakak kaka dakar, eta pentsatzen jarrita... Mundua nolakoa litzateke, bakoitza bere kakaren jabe egingo balitz? Norbanako, kolektibo edo herri gisa batzen gaituen, baina ezkutatzen dugun horren guztiaren azaleratze-festa da *Kaka*.




OTSAILAK
**8**
Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

## TRAJEA

Txalo Produkzioak. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

Hiriburuko saltoki handietako merkealdiaren lehen eguna da. Jendea tropelean sartu da, eta istripu bat gertatu da. Eraikinaren erraietan, segurtasun-zaintzaile batek negozio-gizon bat galdekatu du, jantzi bat erostera etorri delako, eta gertakariekin zerikusia izan duelako. Baina, zein dira gertakariak zehazki? Eta zer arrisku dakarkie bi pertsona horiei?




OTSAILAK
**19**
Osteguna
19:00,
Gezala
Auditoriuma

## MAHAI INGURUA

Lezo-Jaizkibel Mendi Lasterketa. EUSKAL HERRIA. EUS. DOAN

Lezo-Jaizkibel Mendi Lasterketaren baitan, mahai-inguru bat izango da Usoa Ostolaza, Jokin Lizeaga eta Martxel Bereauren eskutik. Goi mailako hiru kirolari hauek kirol errendimenduaz, osasunaz, sakrifizioaz eta elikaduraz arituko dira, eta bakoitzak bere kirol jardunean bizitako pasarteak partekatuko dituzte.



OTSAILAK
**22**

Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

## AZALA

DAB dantza konpainia. EUSKAL HERRIA. EUS. 8€

DAB Dantza Konpainiako 5 dantzari eta txelista bat zuzenean galdera honi erantzunak bilatzen murgiltzen dira: etorkizun hobe baterantz eboluzionatzen ari gara, ala erabaki txarren ziklo errepikakor batean gaude harrapatuta? Estetika ikusgarria eta koreografia oso landua eskainiko dute.




MARTXOAK
**8**

Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira

## ESNE-BERRIKETAN

EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

**Uxue Alberdi, Nerea Ibarzabal, Miren Amuriza eta Amorante.**
Uxue Alberdi herriz herri istorioak biltzen aritu da bi urtez. Andrazkoei buruzko istorioak jaso ditu, nagusiki emakumeek kontatuak. Ahoz jasoak idatziz eman ditu orain *Esne-berriketan* izeneko liburuan, eta liburu horretan oinarrituriko bertso-saio literario musikatua da oraingo hau.




MARTXOAK
**22**

Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

## UNA MERA CURIOSIDAD

Producciones Maestras Teatro. EUSKAL HERRIA. ES. 8€

Artemisia Gentileschi, pintora barroca italiana, hoy ha decidido salirse de su marco y abandonar las dos dimensiones para venir a contarnos algo. No tiene muy claro el porqué, pero no podía permanecer impasible ante el acontecer de los tiempos. Tal vez nosotros le podamos ayudar a resolver esa inquietud que le reconcome por dentro…



APIRILAK
**19**

Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

## BI BASO BAT UR

Metrokoadroka. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

Metrokoadroka kolektiboak dantzalekuaren erdian ezin mugiturik dauden lau pertsonen istorioa kontatuko du; sakontasunez eta errespetuz, baina modu alaian. Lau pertsona dantzaleku baten erdian. Bakoitzak baso bat ur du eskuan. Lauak geldirik daude, DJak inguruko jende guztia dantzan jartzen duen bitartean. Tratu txarren osteko alaitasunaz mintzo da antzezlan hau.

# DANTZA / MUSIKA / ANTZERKIA ////////////

Gezala Auditoriumean, igandeetan, 19:30ean

**DANZA / MUSICA / TEATRO**



MAIATZAK **3**

Igandea 19:30, Gezala Auditoriuma

## KOLAPSOA

Jon Ander Urresti. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

Publizitate agentzia batetako hiru kideen ibilerak ditu ardatz obra honek. Edozer saltzeko kapaz dira, baita behar ez duzuna ere. Batik bat, behar ez duzuna. Despistatu, eta bi buruko koilara bat salduko dizute azkarrago bazkalduko duzula esanda. Eskaera batek, ordea, hankaz gora jarriko du agentzia. Gauza bakar bat saltzea lortu behar dute: gehiago ez erosteko gogoa.

---



MAIATZAK **17**

Ostirala 19:30, Gezala Auditoriuma

LGTBI-fobiaren aurkako egunaren harira

## DYSPHORIA

Histrión Teatro. ANDALUZIA. ES. SARRERA 8€

Ella está en shock. Su hija de dieciséis años acaba de confesarle que no es una chica; sino que es un chico. Ya no será más Alejandra, será quien realmente es: Alex. La terapia, los grupos de sensibilización, nada es suficiente para aceptar el hecho de que su hija ya no será más su hija y la negación, la resistencia y la frustración se abren paso desde el dolor que provoca el cambio.

---




EKAINAK **13 14**

Larunbata eta igandea, 19:30, Gezala Auditoriuma

## GAUEKO HITZAK

Orratx! EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

Gauean, ordu txikitan, sarritan esna egoten garenean, irudimena astindu egiten zaigu; zenbaitetan kezkek harrapatzen gaituzte, beste batzuetan, ordea, ametsen gainean egiten dugu hegan. Beldurrak, desioak, nahiak eta ametsak dantzan, gauaren iluntasunean eta isiltasunean.

---




*Eskuratu*

**Gezala Auditoriumeko LAGUN TXARTELA**

*eta gozatu abantailez*

# LITERATUR SOLASALDIAK ////////////////////

Astearteetan18:30ean, GAZTELERAZ
Asteazkenetan 18:30ean, EUSKARAZ

Udal liburutegian **CHARLAS LITERARIAS**




URTARRILAK **27**

CAST

## ORGULLO Y PREJUICIO

JANE AUSTEN




OTSAILAK **25**

EUSK

## DENBORAREN ZUBIA

IÑAKI ITURAIN




MARTXOAK **24**

CAST

## LA LUZ DIFÍCIL

TOMÁS GONZÁLEZ



APIRILAK **29**

EUSK

## DIRUA GALGARRI

MARIANO IZETA




MAIATZAK **26**

CAST

## ¿QUIÉN SE HARÁ CARGO DEL HOSPITAL DE RANAS?

LORRIE MOORE

Euskarazko solasaldiak **Ane Mayoz**ek dinamizatuko ditu.
Gaztelerazkoak, **Javier Mina**k.

Las charlas en euskera serán dinamizadas por **Ane Mayoz**.
Las del castellano, por **Javier Mina.**






## DESKARGATU LEZOKO APP-A

Agenda osoa, sarrerak erosteko aukera eta beste gauza asko kulturako APPan.

## DESCARGATE LA APP DE LEZO

Toda la agenda, opción de compra de entradas y muchas cosas más en la APP de cultura.

# IPUIN KONTAKETAK ///////////////////////////////

Udal liburutegian, asteazkenetan, 18:15ean

CUENTA CUENTOS



MARTXOAK
4
18:15
liburutegian
4-7 urte

IXABEL AGIRRESAROBE

## MARTXOAN ZE BERRI? KONTU ZAHARRAK UGARI!



MARTXOAK
11
18:15
liburutegian
4-7 urte

INES BENGOA

## BASOAN BARNA



MARTXOAK
18
18:15
liburutegian
4-7 urte

MIKEL SUSPERREGI

## BIDEAN KANTARI



MARTXOAK
25
18:15
liburutegian
4-7 urte

AMAIA PUIN

## ZUP-ZUP, ZOPA IPUINAK!



MAIATZAK
6
18:15
liburutegian
4-7 urte

AMELI

## UDABERRIKO ISTORIOAK



MAIATZAK
13
18:15
liburutegian
4-7 urte

MAITE FRANKO

## ARRAINA ETA LIMOIA



MAIATZAK
20
18:15
liburutegian
4-7 urte

PELLO AÑORGA

## UDABERRIKO HAZIAK



MAIATZAK
27
18:15
liburutegian
4-7 urte

LUR KORTA

## OTSOZ OTSO

# LESOINU//////////////////////////////////////////////////

## OTSAILA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 27 | 19:00 | VALENTIN LARREAREN 150. URTEURRENA | Gezala Auditoriuma |
| 28 | EGUN OSOAN | PIANO JAIALDIA - EHMEE-KO IKASLEAK | Gezala Auditoriuma |

## MARTXOA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | 12:30 | TOMAS GARBIZUREN MUSIKAREN MILA ERTZ (DISKOAREN AURKEZPENA) | Gezala Auditoriuma |
| 13 | 17:30 | ITSASBAZTERREKO IPUINA - AMELI IPUIN KONTALARIA | Gezala Auditoriuma |
| 13 | 19:00 | ONGI ETORRI - AMELI IPUIN KONTALARIA | Gezala Auditoriuma |
| 14 | 11:00 | KALEBUELTA - OIARTZUNGO H. M. E-KO XIROLARRU TALDEAREKIN | Herritik zehar |
| 15 | 11:00 | KALEBUELTA - MUNTTAR TXISTULARI TALDEAREKIN | Herritik zehar |
| 15 | 13:00 | KANBALATXE TANGO EMANALDIA | Gurutze S. plazan |
| 15 | 19:00 | KONTZERTUA - ADELAIDA BIKOTEA (AKORDEOI-TXELO) | Gezala Auditoriuma |
| 21 | 12:30 | KANTUJIRA | Aiton Bordatik abiatuta |
| 24 | 10:30 | KONTZERTU DIDAKTIKOA - TGLUMEKO INSTRUMETU IKASLEAK | Gezala Auditoriuma |
| 25 | 18:00 | MUSIKA ETA ZINEMA - AITOR AMEZAGA | Musika Eskola |
| 26 | 10:30 | KONTZERTU DIDAKTIKOA - TGLUMEKO INSTRUMETU IKASLEAK | Gezala Auditoriuma |
| 27 | 10:30 | “IPUINA MUSIKALA” - TGLUMEKO T.KORALA | Gezala Auditoriuma |
| 28 | 19:00 | ONE MUSIKALA - ARTEON (LAUDIO) | Gezala Auditoriuma |

## MAIATZA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 9 | 19:00 | IRURTZUN (NAFARROA) ETA SUTARGI (LEZO) ABESBATZAK | Gezala Auditoriuma |

OHARRA: Leku, ordu eta datetan aldaketak egon daitezke; hala ere, jarduera bakoitzaren aurretik, behar bezala jakinaraziko ditugu.

NOTA: Las fechas, horarios y lugares son susceptibles de modificación; no obstante, antes de cada actividad se informará debidamente de la organización de las mismas.

# AGENDA Kulturala

Kultura guztia zure poltsikoan: deskargatu Lezoko app-a eta hasi esploratzen
Toda la cultura en tu bolsillo: descarga la app de Lezo y empieza a explorar

LEZO

## 2026ko URTARRILA-EKAINA

### URTARRILA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

### OTSAILA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | |

### MARTXOA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | 31 | | | | | |

### APIRILA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | | | |

### MAIATZA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

### EKAINA

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | | | | | |

- HAUR ANTZERKIA
- ZINEMA
- ANTZERKIA
- MUSIKA
- DANTZA
- LITERATUR SOLASALDIAK
- IPUIN KONTAKETAK
- MUSIKA EMANALDIAK

Kulturala